

BAKIOKO EUSKERA

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskera. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun

Oarra: Era bitara dakarguz, esaterako,

- zelan idatzi bear dan: «urtarrila», «alabea»
- Bakion zelan esaten dan: «(urtérrille, alabie)»

Urteko ileak	Asteke egunak	Urtaroak
urtarrila (urtérrille) zezeila (seséille)	asteleena (astélena) martitzena (martítzena)	negua (negúe) udabarria (udebárridxe)
martia (martídxe) apirila (apírrile)	eguaztana (egústena) egüena (egúena)	udea (udie) udagoiena (udegoidxena)
maiatza (maiézza) bagila (bagílle) garagarrila (garágarrillé) abuztua (abústué) iraila (iráillé) urria (m'ródxe) zemendia (seméndidxe) abendua (abéndue)	barikua (bafíkue) zapatua (sapátue) domekea (domékie)	

Ona emen euskeraz erabilten doguzan artikulua (ZER kasuan):

-a (bat) : odola, gizona, ura, adarra, babeska, taketa,...
-ak (batzuk): odolak, gizonak, urak, adarrak, babesak, taketak,...

Artikulua berbearen (izena/adjetiboa) erroari atzean geituten jakoz:

berba-erroa: gizon
artikulua: -A (bat) / -AK (batzuk)
berba-erroa + artikulua: gizon+A / gizon+AK

Bakioko euskera bizkaiera da. Bizkaierearen barruan iru sistema dagoz: -EA / -IA / -IE izenekoak. Bakioko euskera -IE sistemakoa da: (alábie). Sistema orren ezaugarriak urren-go oneexek dira:

(batentzako)

-a+a = -ea (-ie)	alaba+a = alabea (alábie)
-e+a = -ea (-ie)	ume+a = umea (umíe)
-i+a = -ia (-idxe)	txarri+a = txarria (txarírdxe)
-o+a = -oa (-oa)	asto+a = astoa (astóa)
-u+a = -ua (-ue)	buru+a = burua (burúe)

(batzuentzako)

-a+ak = -ak (-ak)	alaba+ak = alabak (alábak)
-e+ak = -eak (-iek)	ume+ak = umeak (umíek)
-i+ak = -iak (-idxe)	txarri+ak = txarriak (txarírdxe)
-o+ak = -oak (-oak)	asto+ak = astoak (astóak)
-u+ak = -uak (-uek)	buru+ak = buruak (burúek)

Beste adibide batzuk:

-a+a = -ea: ezpata-*ezpatea* (espátie), berba-*berbea* (berbíe),
-e+a = -ea: etxe-*etxea* (etzíe), seme-*semea* (semíe),...
_i + a = -ia: ogi-*ogia* (ogídxie), euli-*eulia* (eulídxie),...
-o+a = -oa: arto-*artoa* (artóa), baso-*basoa* (basóa),...
-u + a = -ua: esku-*eskua* (eskúe), erru-*errua* (errúe),...

Bakion lez, urren-go erriotan be -IE sistema erabilten da:

Mañu-Meñaka-Fruiz-Arrieta-Errigoiti-Morga-Muxika-Gernika-Lumo-Ajangiz-Gautegiz-Arteaga-Ibarrange-lu-Ea-Arratzu-Kortezubi-Ereño-Nabarniz-Mendata-Munitibar-Zornotza-Iurreta-Garai-Durango-Abadiño-Izurtza-Mañaria-Atxondo-Aramaio .

Iniaki MARTIARTU



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.